

noaua

**Andatza Mendi Kirol
Elkarteak 2016ko irteeren
egutegia eman du aditzera**


**Aurtengoa “edan
errazeko sagardoa da”**

**Larunbatean, Dominika
Agergarairen omenezko
ekitaldia Sutegin**

Marisa Alejandro, libre


Usurbilen, auto tailer berria!

Esena Ramon



Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



EuroTailer

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



943 530 337
607 119 313

ITZIRA
ERAIKUNTZAK



·gremioen koordinaketa ·berritze lanak
·sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

GOLDWELL
ELUMEN

ileapaingegi

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Albiste iruditzen

Errausketaren aurkako mugimendua indartzen

Errausketaren aurkako taldeek larunbat goizean Zubietan egin zuten batzarra-
ren amaieran, Argiak ateratako irudia
duzue honakoa. Eragile eta norbanakoen
arteaz guztira 70 bat lagun bildu ziren. Bes-
teak beste; Hernanin Zero Zabor, Oñati Zero
Zabor, Usurbilgo Erraustegia Erabakia taldea,
Lasarteko Aire Garbia, Andoaingo Ipar Hai-
zea, Tolosa Zero Zabor, Errausketaren kon-
trako Koordinadora, medikuen taldea, Zero
Zabor IBE, Ekologistak Martxan, Eguzki, Ernai,
Irabazi...

Talde guztion arteko elkarlana sendotzeaz,
"gizarte eredu berri baten alde ari diren beste
mugimenduekiko loturez" eta aurrera begirako
mobilizazioez jardun zuten. Honez gain, "Zu-
bieten SOS. Buruaren eta Bihotzaren aldarria"
manifestua ere aurkeztu zuten. Otsailaren
13an biltzekoak dira berriz.

Plataforma berria

Zubietan batzarra ospatu zen goiz berean,
Andoainean errausketaren aurkako plataforma



Aurreko larunbatean batzarra egin zuten Zubietako Kaxkapen.

berria aurkeztu zuten; Ipar Haizea izenekoak.
Hainbat ekimen iragarri dituzte.

Urtarrilaren 29an ostirala, Ainhoa

Intxaurrendietaren hitzaldia Potxoenean

"Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen, ba, gel-

ditu?" hitzaldia antolatu du Erraustegia Era-
bakia herri plataformak, urtarrilaren 29rako
arratsaldeko 18:30ean Potxoenean. Gipuzkoako
Hondakinen Kontsurtzioko (GHK) lehendakari
ohi Ainhoa Intxaurrendieta ariko da hizlari la-
netan, antolatzaileek aurreratu digutenez.

Laburrean

Urtarrilaren 29an, Gure Pakearen Batzar Nagusia

Hilabeteko azken ostiralerako deitu du Gure
Pakea Elkarteak, urteroko ohiko batzar nagusia.
Deialdi bakarra egin dute; urtarrilaren 29rako,
arratsaldeko 16:30etan, Gure Pakea Elkarteak
Artzabalen duen egoitzako ekitaldi aretoan.

Urtarrilaren 31n, 'Irisasi BTT Hotzak akabatzen' lasterketa

Urtarrilaren 31n ospatuko da eta izena emateko
epea zabalik dago oraindik. Apuntatzeko, sartu
www.kirolprobak.com atarian. 15 euro ordain-
du beharko dituzte federatuek, 18 euro fede-
ratu gabek.

Ikastaro ugari antolatu dituzte KzGunean

Hurrengo asteotarako eskaintza zabala egin
du Usurbilgo KzGuneak. Facebook, Twitter,
Youtube, Wikipedia... menderatzeko ikasta-
roak. Informazio gehiago: 943 023 684 /
tutor.usurbil@kzgunea.net

noqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldia. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etzabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

“Emakumea negarrez”

Ikastea azkar batean, zenbatek asmatuko luke nork pintatu zuen *Gernika* koadroa? “Askok, gehienek”, pentsatuko duzue. Zenbat etxeetan egongo da koadroa eskegita. “Etxe askotan”. Seguru baietz. Ados: askok jakingo dute Pablo Picassorena dela *Gernika*.

Picassoren beste koadrorik eza gutzen al duzu? Galdera honen aurrean, ordea, ganoraz erantzuteko lanak izango genituzke.

Ikur edo ikono baten egile diren artista askorekin gertatzen zaigu.

Guggenheim Bilbao Museoa eraiki zuen arkitektoaren izena ere, berehala etorriko zaigu burura: Frank Gehry. Berak eginiko beste lanik esaterik bai?

Urrutira joan gabe, Bernardo Atxaga *Obabakoak* liburuarekin

lotuko genuke berehalakoan. Baina bigarren titulu bat aipatzea kostatzen egongo litzaziguke.

Zerrenda luzea osatu daiteke antzeko adibideekin.

Niri duela gutxi gertatu zait. Eguberrietako oporralditxoan, Pablo Picassoren *Emakumea negarrez* koadroarekin egin genuen topo. Kasualitate hutsez. Museo baten barruan, pasieran genbiltzala, *Emakumea negarrez* koadroarekin eman genuen (*Weeping woman* 1937 irakur zitekeen margolanaren oinean). Zur eta lur utzi ninduen. Badu *Gernikatik*, baina ez da *Gernika*.

Erretratu bat da. Emakume bat ageri da negarrez. Aurpegiaren espresioak ondo baino hobeto islatzen du gerra baten izugarrikeria.

Pentsatzen dut antzekorik senti-

tuko zutela *Gernika* lehen aldiz ikusi zutenek (36ko gerra puri purian zen garaian, atera kontuak). Gurrean ordea, hain da gurea. Etxekoa. Egunerokoa. Begien aurrean izanda ere, jada ez dugu margolariak islatu zuena ikusten. Ohitu gara. Gure etxeko paisaiaren parte bat da.

Emakumea negarrez margolanak ordea, zirrara berezia eragin zigun. Eta deseroso sentiarazi. Sekula ikusi gabea genuelako. Jakinmina asetu asmoz, informazio bila hasi ginen. *Gernika* koadroa bukatu eta gero, serie moduko bat egin zuen nonbait. *Gernika* koadroaren tematika bera segitzen du serie horrek. Guk ikusitako koadroan, emakume bat malkotan ageri da, mukizapi bat du ahoan, eta samina adierazten du bere espresioan. *Gernika* koadroaren aldean,

Emakumea negarrez erretratu baten bada nabarmentzen den beste elementu bat: kolorearen erabilera.

Kolore, tematika eta Picassoren iruditeriaren zurrumbilaoan, iaz Zarautzen ikusi genuen erakusketa zoragarria etorri zizkidan burura. Zumetaren *Gernika* eta koadroaren beraren parte bilakatu diren sei eskulturak, zehatzago esanda. Zarauzko Merkatu Plazan, saltzaileen zein erosleen joan-etorriarekin sinbiosi zoragarrian.

Tate Modern Galleryn, *Emakumea negarrez* koadroaren alboan ere, zoragarri legoke Zumetaren bertsioa. Tate Modernen izango al dute Zumetaren koadroaren berri? Zalantza horrekin atera ginen museotik.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

Mozorroak prestatzen hasteko garaia da

ragarri dizuegu asteotan; lan munda mozorrotzera goaz otsailaren 6an ospatuko dugun Inauteri Festan. Lanbideak ditugu, parranda koloretsurako aitzakia aurtengoan. Prestatu zuen jantzia eta otsailaren 6an atera kalera, egun osoko ekitaldi eskaintza murgiltzeko aukera aparta izango baita. Halere, bezperan, otsailaren 5ean, helduko dira inauteriak, ikasleen eta Orbeldi dantza taldekoen eskutik:



Ikasleek otsailaren 5ean egingo dute mozorro desfilea. Biharamunean, gazte zein helduen txanda izango da.

Otsailak 5, ostirala

- Goizean, Udarregi Ikastolako ikasleen mozorro desfilea Kaxkoan.
- 11:00 Udarregi Ikastolako ikasleen ikuskizuna Oiardon. Sarrera mugatua, ikasleen sendientzat.
- 18:30 Orbeldi Usurbilgo Dantza Taldearen kalejira Kaxkoan zehar.

Otsailak 6, larunbata

- 12:30 Udaletxetik abiatuta, Lau-

buru Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira, dultzaineroek lagunduta.

- 16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!
- 17:00 Frontoitik abiatuta, Burrunbazale txarangarekin kalejira, herriko kaleetan barrena.
- 19:00-21:00 DJ VAN frontoian.
- 23:00 DJ VAN berriz frontoian.

Inauteri bezpera, Santa Agedarena ere bai

Goiz datoz inauteriak, otsaila hasieran izango ditugu. Mozorro festa goiztiarrak, tradizio luzeko beste ospakizun batekin egokituko dira aurretik; Santa Ageda bezperarekin. Otsailaren 4an ospatuko dute ikasleek Santa Ageda, eta biharamunean Inauteri jai.

Donostiako bus geltoki berriak aldaketak eragingo ditu

Bus geltoki berria irekitzen dutenean, Amarako geltoki zaharra itxi egingo dute. Eta aldaketarik ez bada behintzat, Lurraldebusek orain arte Amairaino eskaintzen zuten zerbitzua murriztuko du. Autobusek ez dute geraldirik egingo Pio XII.an. Beraz, Usurbildik Donostiara autobusez zoaztenontzat, San Martin kalean (erdigunean) izango duzue autobusetik jaisteko azken aukera. Eta Donostiatik Usurbila itzultzeko lehenengo geltokia berriz, As-katasunaren Hiribidean kokatua dagoena izango da. Autobusa ez da Amara sartuko.

Informazio gehiago:

- 943 415 208 (asteleheneretik ostegunera, 08:30-13:30/15:00-17:15// ostiralean, 08:00-15:00 artean).
- gfa_garraio_idazk@gipuzkoa.eus
- lurraldebus.eus

Marisa Alejandro ez dute espetxeratuko

O4/08 sumarioan auziperatua zegoen Marisa Alejandro usurbildarrak eta Ezker Abertzaleko beste 34 kideak ez dituzte espetxeratuko, abian zen epaiketako aldeek, Fiskaltzak, defentsak, eta herri akusazioak (AVT eta Dignidad y Justicia), adostasunera heldu baitira. Auziperatuek ere bat egin dute akordio honekin. Legearen aurka jardun izana onartu eta indarkeriazko jardura orenen aurkako konpromisoa azaldu dute. Aitortza hau, biktimen oinazearen erreparaziorako balio izatea espero dute. Aitortza honen ondorioz, eta alde guztiek erdietsitako akordioaren baitan, hasiera batean Fiskaltzak eskatutako hamarna urteko espetxe zigorrak murriztu zaizkie auziperatuei.

Urtebete eta sei hilabete eta bi urte arteko espetxe zigorrak eta inabilitazioa ezarri zaizkie; Marisari bi urteko espetxe zigorra. Honenbestez, ez Marisak ezta gainerako auziperatuek ere ez dute espetxera joan beharrik izango.

Akordio honekin, abenduaz geroztik San Fernando de Henaresen (Madril) abian zen epaiketa amaitutzat eman zuten urtarrilaren 13an. Auzitegi atarian ados ziren auziperatuak adostu berri zuten akordioarekin, helburu nagusia bete zelako; espetxeratu gehiagorik ez izatea alegia. Akordio honek gainera, etorkizunean salbuespen legedien ezarpenarekin amaitzeko balio izango duela espero dute.

2007ko urrian Seguran abiatutako auzia amaitu da

Seguran 2007ko urriaren 4an izandako polizia operazioaren ha-



2007ko urriaren 4an Seguran hasi zen amesgaiztoa amaitu berri da Marisa Alejandrorentzat.

IA HIRU URTEZ PRESO

Marisa Alejandro ia hiru urte izan zuten preso, 2010eko apirilaren 15ean, bera eta polizia operazio berean atxiloturiko beste 9 lagun bermepean aske utzi zituzten arte

ritik dator, 04/08 sumarioari lotuta, asteotan Madrilan izan eta akordio batekin amaitu berri den epaiketa. Ezker Abertzaleko 23 lagun atxilotu zituen polizia espainiarrak duela 7 urte pasatxo Goierriko udalerrri horretan, tartean, Marisa Alejandro usurbildarra. Batasunaren mahai nazionala berriro osatu izana leporatu zitzaizen. 23 lagunon etxeak eta EHAK alderdiaren egoi-

tza miatu zituzten.

Marisa, Espainiako Poliziak Donostian duen egoitzan izan zuten lehen gauean. Biharamunean, EHAK-k Belartzan zuen bulegoko miaketara eraman zuten. Gero Usurbila ekarri zuten, bere etxea miazteko. Atxilotok salatzen mobilizazio ugari burutu ziren garai hartan, bai Usurbilen, baita Euskal Herri mailan ere; tartean, jarraipen zabala izan zuen ordubeteko lan uztea egin zen.

Zortzi urte eta gero epaitu dituzte

Egun haietan Soto del Realen espetxeratu zuten Marisa. Ia 3 urte izan zuten preso, 2010eko apirilaren 15ean, bera eta polizia operazio berean atxiloturiko beste 9 lagun bermepean aske utzi zituzten arte.

Zortzi urte eta gero epaitu dituzte Marisa eta Ezker Abertzaleko beste 34 kideak.

Herritarren babesa jaso du urteotan

Lehenago bezala, azken urte honetan ere, hainbat mobilizazio burutu dira herrian, epaiketa politikoak behin betiko amaitzea, auziperatu guztiak libre uztea eta espetxeratzeko gehiagorik ez izatea eskatzeko.

Usurbildarrek, hainbatetan adierazi diote babesa eta elkartasuna Marisari eta gainerako auziperatuei. Eta hainbatetan salatu dute, amaitu berri dena, auzi politikoa izan dela. "Euren delitu bakarra 2005-07 artean, bere eskubide politiko eta zibilak erabiliz lan politiko, publiko eta instituzionala egitea da", duela urtebeteko agerraldi batean adierazi zenez.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Marisa Alejandro, libre azkenean

04/08 SUMARIOARI LOTURIKO EPAIKETA AKORDIO BATEKIN AMAITU DA

Amaitu da Marisaren-tzat, 2007an hasitako amesgaiztoa; atxiloketa, bi urte eta erdiko espetxealdia, epaiketa, tarte horretan jasandako eskubide zibil eta politikoen urraketa... Libre da Marisa, 04/08 sumarioari loturiko epaiketa akordio batekin amaitu baita. Hau ere berria, auzia abiatu zenetik aldaketaz jositako 8 urteren ostean datorena. Marisaren eskutik, itxi berri duen bizitzako etapaz jardun dugu lerrootan.



“Niretzako pentsaezina da oraindik, baimenik eskatu gabe Hendaiara kafe bat hartzera joan ahal izatea”.

NOAUA! Epaiketa amaituta, akabo urteetako ametsgaiztoa?

Marisa Alejandro: Zenbait uneetan oraindik ez naiz jabetzen zer nolako garrantzia duen. Oraindik bihar, berriz Madrilera joan beharko banu bezala sentitzen naiz. Baina bestalde, hitz egiterakoan eta egunerokoan gauzak egiterakoan, nolabait, aldatu dut txipa.

MARISA ALEJANDRO

“Bi urte eta erdiko espetxe zigorra bete genuenoi bi urteko zigorra jarri digute. Zigor osoa betea dugu jada”

N. Auziperatua egoteak urteotako bizimodua baldintzatu ditu.
M. A. Ezin genuen adierazpen publikorik egin, ezin genuen manifestazioetara joan.

Estatu espainiarrean egon behar ginen, estatutik ateratzeko baimena eskatu behar genuen. Lagunak ditugu Iparaldean. 6 urteotan oso gu-

txitan joan naiz hara, baina aurrez beti baimenak eskatuta. Beti baimena emango zidaten edo ez itxaron behar. Detalle oso txikiak dira, oharkabean pasatzen direnak baina norbere bizimodua baldintzatzen dute. Gainerakoan, bizitza normala egin genezakeen, baina edozein unetan, edozein gauzarekin berriro kartzelara joateko arriskua genuen. Hala ere horrekin bizitzen ikasten duzu. Niretzako pentsaezina da orain, baimenik eskatu gabe Hendaiara kafe bat hartzera joan naitekeela esatea.

N. Bi urteko espetxe zigorra jarri zaizu. Ze ondorio edo eragin izango du honek zuzan?

M. A. Ezer ez. 10 urteko eskaera genuen hasieran. Orain zigorrak murriztu dizkigute, bi urte eta erdiko espetxe zigorra bete genuenoi bi urteko zigorra jarri digute. Espetxe zigor osoa betea dugu jada.

“Agerian geratu da auzia guztiz politikoa izan dela”

NOAUA! Akordioak ez du atzera bueltarik?

Marisa Alejandro. Sinatua dago jada. Aurreko astelehenean hasi ginen horrekin. Asteartean jada ez genuen epaiketa saiorik izan. Negoziaketak izan ziren eta asteazkenean alde guztiek akordioa sinatu genuen. Jada ez dago atzera bueltarik.

Garaiz kanpokoa eta politikoa izan den auzia amaitu da beraz...

M. A. Agerian geratu da auzi guztiz politikoa izan dela. Izan zen, eta horrela bukatu da.

N. Errealitate politikoa ere nabarmen aldatu da, auzi hau 2007an hasi zenetik?

M. A. Oso une bereziak ziren haiek. 2006-07an Loiolako elkarrizketa prozesua hautsi zen. Horren ostean, Rubalcabak adierazi zuen, gutxienez 200 lagunek kartzelara joan beharko genuela eta hitza bete zuen. Hor dena aldatzen hasi zen. Badakigu non bizi garen eta zer gertatzen ari den inguruan. Kartzelara joan baino lehenago jazarpena bizi izan genuen, baina askoz gogorragoa izan zen espetxetik atera eta gero. Gero pasa zen den-

bora eta lasaitu zen giroa. Horrek bizimodua mugatzen du, zure bizitza pertsonala eta ingurukoena. Oso gogorra da.

N. Epaietaren hasierarena bezala. Urtebetez behin eta berriz atzeratzeak, ezinezona ere eragingo du?

M. A. Bai. Baina etorkizunari begira egon gabe bizitzen ikasten duzu. Azken finean, zure burua eta bizimodua, horrek guztiak ahalik eta gutxien baldintzatzeko moduan antolatzen duzu. Gainerakoek bezalako bizimodua izan nahi duzu. Baina asko kostatzen da.

“Aurrerapauso bat da”

NOAUA! Alde guztiek akordioa erdietsi duzue eta epaiketa amaitu da. Aurrekari bat izan daiteke, aurrera begira bide berri bat ireki dezake honek?

Marisa Alejandro. Bai. Aurrerapauso bat da hau, ez bakarrik guretzako baita aurrera begira ere. Ez dakigu bide honetatik jarraituko duten, guk baietz espero dugu. Ia salbuespen legeak bertan behe- ra uzten dituzten. Guretzat garrantzitsuena izan da alde guztiak, adostasunera heldu gara. Baita herri akusazioa (AVT eta Dignidad y Justicia) ere. Ez genuen inondik inora halako jarrerarik espero.

Marisa Alejandro: "Espetxean geundenean, asteburuak krudelak izaten ziren"

NOAUA! Herritik urrunarazi zintuzten bi urte eta erdiz. Espetxetik espetxera.

Marisa Alejandro. Senide eta lagunik gabe oso zaila da espetxeko bizimodua. Niretzat eta nik uste preso guztientzat, okerre hori da, egoera hau gure ingurukoek nola bizitzen duten ikustea. Guk han nahiz eta une gogorrek bizi izan, isolamenduan ez bazaude eta kideekin egotea egokitzen bazaizu, moldatzen gara.

Baina askoz gogorragoa da kanpoan daudenean bizi dutena. Seme alabentzat adibidez, asteburuak parranda gauak izaten dira. Baina bisita goizeko 09:00etan Avilán izanez gero, badakizu zure seme-alabak goizeko 03:30erako etxetik atera behar direla. Beraiek ere bizitza normalizatu bat izateko eskubidea dute, baina...



04/08 sumarioari loturiko epaiketa salatu eta Marisa Alejandro herritarrari zein gainerako auziperatuei elkartasuna adierazteko, agerraldi bateratua egin zuten EH Bilduk eta EAJ-PNV-k Sutegin. Iazko otsailaren 6an, hain zuzen.

N. Bisitak egiteko, astebururo joan etorri luzeak egin behar.

M. A. Hori ikaragarria da, kontaezina. Espetxean geundenean, asteburuak krudelak izaten ziren. Zure lagunak, familia, jendea ikusteko gogo duzu, eta aldi berean, bisiten bezpera eta hurrengo gaua izugarriak dira. Astelehen goizeko beti etxekoei deitzen nien, Usurbila ondo heldu ote ziren jakiteko. Ostiral arratsaldetan

askoz urduriago eta tentsuago egoten ginen. Soton, neska nafatar bat zen gurekin. Behin, bere senideak bisitan zihoazela bidean galdu ziren. Gu han ginen sartuta, ez genekien ezer. Ez ziren iristen eta oso urduri jartzen hasi ginen. Azkenean, funtzionarioa etorri zen bidean galdu zirela eta heltzeko ordu laurden bat falta zitzaizela esanez. Espetxean egon nintzen garaian, ziklogenesi bat ere

izan zen. Asteburu batean toka-toka zen. Bi lagun bisitan etortzekoak ziren. Esan nien ez etortzeko, baina halere etorri ziren. Bada bitxikeria polit bat; autopistako ordainlekuan, bertako langileak ia burua galdu ote zuten eta ia nora zihoazen galdezka hasi zitzaizkien. Baina bi lagunok bisitan etorri ziren.

N. Maiz salatu izan dute senideek bisitetan jasandako tratua. Zuen kasuan ere halakorik bizi izan al duzue?

M. A. Ni egon nintzen kartzelan, ez zen oso tratatu berritza izan. Hori ere, funtzionarioaren arabera izaten da. Baina beste espetxe batzuetan oso gogorra izan da; miaketak, hainbat aldiz senideak etxera itzuli behar izatea bisitarik egin gabe... Haiek izugarriko ahalegina egin, bisitara ailegatu eta hori gainera.

"Udan kongresua prestatzeko asmoa dugu. Jende berria ikusiko da, ilusioa"

NOAUA! Urteotan, herritarrengandik babestua sentitu al zara?

Marisa Alejandro. Bai. Begiradetan antzematen dut. Sarritan, zenbait jendekin, inoiz hitz egin izan gabe ere, badago halako konplizitatea. Ikaragarria da eta eskertzekoa. Hainbatetan, herriari ematen diozuna baino gehiago ematen dizu herriak. Indar berezi bat ematen dizu. Beste modu batera, gertuko eta herritarren babesik gabe egoera hau eramatea jasanezina izango zen.

N. Gaur egungo errealitatera etorrira, egon liteke halako sentsazio bat, ez aurrera ez atzera ote gauden, Kataluniara begira sarri...

M. A. Kataluniakoa eta Euskal Herrikoa, bi errealitate oso ezberdinak dira. Gizarte ezberdinak, eremu politikoetan guztiz ezberdinak... Hemen adibidez, ez dugu gizartea hain kontzientziatua. Neuretzat badaude orde, sustrai sakonak; pixkanaka landu beharrekoak. Hemen ikusi dugu azken urteotan, Gure Esku Dagoren indarra handia

dela. Aurten herri galdeketak iragarri dituzte eta hori abiapuntu oso interesgarria da. Hortik zenbait gauza mugitzen ikusiko dugu. Baina kontuan hartu behar dugu, Katalunia bere bidea egiten ari da, eta guk geurea landu behar dugu. Begiratu eta ikasi behar dugu Kataluniatik, batez ere hango hanka sartzeaz ikasi behar dugu, guk ez errepikatzeke. Ezker Abertzaleari begira, Abian prozesuan murgilduak gaude. Guk uste dugu oso interesgarria izango dela zenbait

gauza lantzeko. Sortun uda parterako kongresua prestatu asmo dugu. Jende berria ikusiko da, ilusioa. EHBilduri dagokionez, sendotu, eta eztabaida bat eman behar da jendarte zabalari begira. Eta garrantzitsuena niretzat, gatazkaren ondorioak konpontzea litzateke; presoen gaia, desarma... Itxaropen gutxi izan arren, ikusiko dugu Espainian gobernu berriak ze aukera eskaintzen duen. Argi denez, etxekolan piloa dugu egiteko, baina denak ilusioz egingo ditugu.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

Angulak biltzen iaioa zen Juan Jose Olano

Ostiral goizaldeaz geroztik desagertua zegoen herritarren hilotza igande goizean aurkitu zuten Aginagan, Oria ibaian. Suhiltzaileak, Ertzaintzaren Urpekaritza eta Txakur Unitateko kideak eta helikoptero bat, Gurutze Gorria eta DYAKo boluntarioekin batera aritu ziren larunbat arratsaldeaz geroztik, bilaketa lanetan.

Ostiral goizaldean, angula bila atera zen 49 urteko gizonetako usurbildarra eta ordutik ez zuten bere berririk. Agertzen ez zela ikusita, senideek, bere desagertuta salatu zuten larunbat arratsaldean. Bere ibilgailua segituan aurkitu zuten Aginagan. Inguruetan aritu ziren bilatzen. Baita Oria ibaian ere. Larunbat iluntzean bertan behera utzi zituzten bilaketa lanak igandean martxan jarri eta ordu gutxira aurkitu zuten gorpua.

Gipuzkoako Ehiza Federazioaren doluminak

Angulak biltzen iaioa zen Juan Jose Olano, bi egunez desagertua egon eta gero, igande goizean Oria ibaian hilik aurkitu zuten usurbildarra, baina ehizan ere trebea. Bat bateko



Argazkian, eskubikoa da Juan Jose Olano. Ehizan ere trebea zen eta hainbat txapelketetan aritutakoa. Astelehenean ziren autopsia egitekoak.

EHIZA FEDERAZIOA

“Ezaguna zen usakumeen zirkuituan. Europako eta Munduko txapelketetan hartu zuen parte euskal selekzioarekin”

heriotza honen aurrean hain zuzen, Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak oharra kaleratu du; doluminak helarazi dizkiote Olanoren senide eta lagunei. “Goian bego lagun”, esanez

amaitzen duten oharrean, guztiz hunkituta agertu dira.

Gogoan dute, usurbildarrak ehizarako zuen zaletasuna. “Olano oso ezaguna zen usakumeen zirkuituan, bere palmaresean, irabazitako Gipuzkoako hainbat kopa ditu, eta hainbat garaipen baita Gipuzkoako Kolombaire Txapelketetan. Honez gain, hainbat denboraldiz, Europako eta Munduko hainbat usoen ehiza txapelketetan parte hartu zuen euskal selekzioarekin”.

Astelehen honetan egitekoak ziren autopsia.

Doako laguntza zerbitzua 4G sareak eragin ditzakeen arazoak konpontzeko

4G teknologia berria telefono mugikorretara iritsi da. Aldaketak hedadura handieneko estaldura hobereana eskainiko du. Ezarpen honek etxebizitzetako Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) seinalean arazoak eragin ditzake. Bereziki, telefono mugikorreko estazioetatik gertuen dauden eraikinetan.

Telebista ondo ikusteko arazorik baldin baduzue, kasuotarako “Llega800” doako zerbitzua jarri du martxan, Espainiako Gobernuako Industria, Energia eta Turismo Ministerioak: 900 833 999 telefono zenbakian eta Interneten: llega800.es

Yoga ikastaroa Einean Guraso

Eskolaren eskutik

Urriari hasi arren, zabalik segitzen du Einean Guraso Eskolaren antolatutako yoga saioetan izen emateko epeak. Saioak asteartean 17:30ean, asteazkenean 18:30etan eta ostegunetan, 10:00etan izaten dira, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Izena eman edo argibide gehiago jasotzeko, deitu Katiari (636 71 15 14).

Mendizaleen egutegia prest

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak osatu du 2016ko irteeren egutegia. Zuen laguntzaz diseinatu dute Euskal Herriko nahiz Pirinioetako txokoak ezagutzera eramango gaituzten txangoen eskaintza. Gogoan izan, urte amaieran mendizaleen ekarpenak jasotzeko deialdia egin zuen Andatza M.K.T.-k. Bilguneetik aditzera eman dutenez, guztira 19 proposamen jaso dituzte, “eta horietatik egokienak txertatu ditugu 2016ko egitarauan”.

Aldaketak egon daitezke

Behin behinekoa da egitaraua, aurreikusitako diren irteerak aldatu edo bertan behera utzi ditzake anto-



Aurten, hiru eguneko irteera irailean egingo da, eta ez uztailean. Andatzako kideek Ordesa aldera joko dute. Irudian, Gorizeko aterpea.

lakuntzak. Horregatik, “irteerak burutuko direla egiaztatu egin behar da antolatzaileekin”. Bestalde, gogoan izan, txango guztietan parte hartzeko ezinbestekoa izango dela mendiko federatua izatea.

2016ko egutegia

- Urtarrilak 31: Irisasi BTT 2016.
- Otsailak 14: Epele-Ugaldetxo.
- Martxoak 13: Hondarribia-Pasaia.
- Apirilak 10: Barandio-Altube.

■ Maiatzak 7,8: Herri Urrats. Egundat edo biko irteera aukeran:

Egundat batekoa: Lizuniaga-Senpere. Bi egunekoak: Ereñozu-Lesaka, Lesaka-Senpere.

■ Ekainak 12: Lizarrusti-Ganbo-Amezketaketa.

■ Uztaileak 10: Otzaurte-Aizkorri-Arantzazu.

■ Irailak 9-11: 3 eguneko irteera Ordesara:

Lehen eguna: Pradera-Góriz.

Bigarren eguna: Góriz-Monte Perdido-Faja Pelay-Pradera.

Hirugarren eguna: Pradera-Tozal de Mallo.

■ Urriak 2: irteera Iparraldera: Heleta-Hortzaize.

■ Azaroak 5: Toloño.

■ Azaroak 24-26: Mendi Astea.

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info

Familia ekitaldiak (ezkontzak, bataioak...)



Zure ezkontza hondartzan, itsaso aurrean...

- Ezkontza zibilak
- Koktelak lorategian
- Gonbidatuentzat gelak
- Menuetan aukera zabala
- Ezkongaientzat "APAINDU ZAITEZ"
"pack"-a gure esku, (estetika, talasoterapia...)
- Gela berezia ezkonberrientzat



aisia
ORIO

Hondartza bidea 1, Orío 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com

“Ekoizpen oso ona izan da aurtengoa”

Txinpartatsua, kolore ilunxeagoa duena, usain oso garbikoa, ukitu goxoduna, sagardo oso orekatuak, gorputz handikoak, “baina oso edan errazak denen gozamenerako”. Halakoxea omen dator aurtengo sagardo berria. Uzta benetan emankorra izan omen da, bereziki aurreko udaberria euritsua izan baitzen, uda oso lehorra eta udazkena beroa. Horregatik, guztira, 13 milioi litro ekoitzi ahal izan dituzte, iazko antzeko kopurua.

“Sagasti batzuk kenduta, ekoizpen oso ona izan da sagasti gehienetan: kasu batzuetan gehiegizkoa izan da eta ondorioz adar asko hautsi egin dira. Barnealdean lehortea bereziki nabaria izan da udan eta horrek eragina izan du sagarren tamainan”, Astigarragako Sagardoetxetik adierazi dute.

“Kontsumoa igotzen ari da itsasoz bestaldera”

Ekoizpen datuok, urtarrilaren 13an Astigarragako Sagardoetxean ospaturiko 23. Sagardo Berriaren Egunean aurkeztu zituzten. Erakunde ezberdinetako ordezkariak bildu zituen ekitaldian, sektoreak



Sagardoetxean inauguratu zen ofizialki txotx garaia.

SAGARDOETXEA

“Uzta benetan emankorra izan omen da, bereziki aurreko udaberria euritsua izan baitzen, uda oso lehorra eta udazkena beroa. Horregatik, guztira, 13 milioi litro ekoitzi ahal izan dituzte”

2016rako dituen erronkak arreratu zizkiguten. Helburu nagusietako bat honakoa; “ea denon artean lortzen dugun sagardoari tokatzen zaion lekua ematea bai Euskal Herrian eta kanpoan”. Ameriketako Estatu Batuetako merkatuan murgiltzeko apustua egingo da. Sagardoetxeko aurkezpenean aipatu zenez, azken urteotan sagardo kontsumoa igotzen ari baita itsasoz bestalde. Iaz %85eko igoera izan omen zen.

“Kontsumoa igotzen ari da itsasoz bestaldera”

“Produktu oso estimatua” omen dute nonbait. Inguruetan den bezalaxe. Etxera etorrita, sagardoak turistentzat duten erakargarritasuna nabarmendu zuten. Produktu turistikoa badela, eta kalitatezkoa gainera. “Bertako sagarrarekin eginiko kalitatezko sagardoa dugu helburutzat”, adierazi zuen ekitaldira gerturaturiko Foru Aldundiko ordezkariak.

Jatorrizko Deitura izateko lanean

Sagardogintzaren atzean, urte osoan isilean lan egin duten hainbat ekoizleren lana ere txalotu zuten. Sagardoa lanpostu sortzailea ere badela gogorarazi zen. Baina baita askoz gehiago ere. “Geure kultura, tradizioa, oinarriak islatzen ditu”, ziotenez. Horregatik, sagardogileekin duten konpromisoa berretsi zuen Diputazioak. Hain zuzen, abuztuan sektore honetako lanketa abiatu zu-


tenetik 100 urte beteko direla iragarri zuten. Mendeurren honetarako, sagardogintzara bideratu ohi dituen diru-laguntzez gain, bi laguntza lerro berri izango omen dira aurtengoa, sagardo ekoizpenerako lur berriak eskuratu eta lur horietako ekoizpena sustatzeko.

Sail berri ekoizpena

Aldundia sagardo ekoizleak la-

guntzen ari den artean, Eusko Jaurlaritzak, epe ertainerako, “Euskal Herriak Babestutako Jatorrizko Deiturako edo Babestutako izendapen Geografikoko sagardoa izateko lanean ari da”.

Lanketa honetarako ezinbestekotzat jotzen dute, “gaur egungo sagastien eta sail berrien ekoizpenerako ahalmena handitzea”, Aldundi eta ekoizleen inplikazioa.



Sagastien eta sail berrien ekoizpenerako ahalmena handitzea ezinbestekotzat jotzen dute.

Sagardoaren kultura sustatzeko elkarlanean

Usurbil, Hernani eta Astigarragak sagardoaren kultura elkarlanean sustatzen segitzeko hartua duten konpromisoaren erakusle, ondoko irudia. Sagardoaren Lurraldeko kide diren hiru udalerrietako alkateak dituzue argazkian, sagardo basoa eskutan dutela, asteazkenean Hernaniko Zelaia sagardotegian ospaturiko 23. Sagardo Berriaren Egunean; Usurbilgo alkatea, Xabier Arregi; Astigarragako, Jesus Mari Santos; eta Hernanikoa, Luis Intxauspe. Hiru udalerriek iaz sinatu zuten, eremu honetan elkarlanean jarduteko hiru urterako hitzarmena.



Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko alkateak, txotx garaiaren irekiera ekitaldian.

Sagardoaren kultura sustatu nahi dute; besteak beste, Sagardoaren Lurraldea markapean sartu, Sagardo Bideak sortu, Sagardoetxea Museoan parte hartu eta ekitaldi berriak bultzatu asmo dituzte.

23. Sagardo Berriaren Egunean, edo bestela esanda, 2016ko txotx denboraldia ofizialki abiatzeko, urtarrilaren 13an Astigarragako Sagardoetxean izandako aurkezpen ekitaldian erakundeen arteko elkarlanean sakontzeko apustua berretsi zuten. Eta jada, eskuartearen dituzten zenbait egitasmoren lehen xehetasunak aurreratu zizkiguten.

“Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa ibiltaria

Testuinguru honetan, esku artean duten lehen proiektuaren xehetasun batzuk aurreratu dizkigute jada; Astigarragako Sagardoetxeak, bertako udalarekin, Hernani eta Usurbilgoekin, eta Donostiako Aquarium-arekin batera elkarlanean

ERAKUSKETA BEGIBISTAN

“Oria eta Urumea ibaien iraganak, sagardoaren inguruko hainbat sekretu ezkututzen omen ditu eta horiek aireratzera doa udaberrian gure artean izango dugun erakusketa”

landu duten “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” egitasmoa. Apirilean inauguratuko den erakusketa ibiltaria dugu. Usurbila ere ekarriko dutena.

Urumea eta Oria ibaien garrantzia

Oria eta Urumea ibaien iraganak, sagardoaren inguruko hainbat sekretu ezkututzen omen ditu eta horiek aireratzera doa udaberrian gure artean izango dugun erakusketa.

Udal, probintzia eta estatuko artxiboetan eginiko ikerketen

emaitza da “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” egitasmoa. Orain arte ezezagunak ziren hainbat datu interesgarri eta bitxiak bilduma.

Aipaturiko bi ibaiok, “bi bailara hauetako bizilagunen komunikazio eta harreman ekonomikoen antolaketan eta Gipuzkoako garapen historikoan berebiziko garrantzia izan zutela erakutsi digute”, Astigarragako Sagardoetxetik aipatu digutenez.

Antza, Oria eta Urumea, “aintzina Gipuzkoak izan zuten bi bizitza iturri nagusiak eta bere bizilagunentzako aberastasunaren iturri izan ziren. Une batzuetan, gainera, gune aurrendariak eta puntako teknologiadunak izan ziren eta beren ur-bazterrak istorio ugari eta askotarikoen lekuko izan ziren, esaterako: XVIII. mendeko langileen greba, Ergobiako bidesarian ordaindu behar zen tasa, itsasoa eta portuekin erlazioaturiko zenbait ogibidetan soldataren zati bat ordaintzeko sagardoa erabiltzea,

Astigarragako alkate bizargina eta Murgiako Jaunen haserre, Ignacio de Soroa untzigile usurbildar ospetsuaren amodio-kontuak...”.

“Sagardo Bide” berriak lantzen

Apirilean inauguratuko duten erakusketa ibiltaria, sagardoaren eskualdea zeharkatzen duten Oria eta Urumea ibaien “ahalmen turistiko eta kulturala” balorean jartzera dator. Erakusketa antolatze-lanean dihardute, egitasmo honen atzean dauden erakundeek; tartean, Usurbilgo Udalak. Baina honez gain, badute eskuartearen beselako proiekturik ere; esate baterako, Sagardoaren Lurraldea ezagutzeko “ibilbide tematiko edo “Sagardo Bide” berriak martxan jartzeko lanetan” dihardute. Aurrerago eskainiko dituzte zehaztasun gehiago.

40. urtemugako txotx irekiera Saizarren

Saizar Sagardotegiko hamaikagarren kupela izan genuen arreta gune nagusia, urtarrilaren 14ko iluntzean; bai hedabideok, baita sagardo zaletuek ere. Hedabideak txotx irekierako irudia grabatzeko gogoz ginen, baina gehienak, kupela barruan bildutako sagardo berria edalontzira zerbitzatu eta probatzeko irrikitan ziren.

Etxekoekin eta aurpegi eza-gun askorekin ospatu nahi izan zuen Saizar Sagardotegiak, 2016ko txotx irekiera ekitaldia. Hirugarren edizioa zen honakoa, aurrekoak baino bereziagoa; sagardotegiak 40 urte betetzen baititu aurten.

Julian Iantzik, Euskal Telebistako aurkezle ezagunak bideratu zuen, bi izen propio izan zituen inaugurazio saioa; Joseba Zaldia eta Diego Reyes Errealeko jokalaria. Biek izan baitzuten hamaikagarren kupeletik ateratako sagardoa dastatzeko ohorea. Sorginak taldeko dantzariak, Kepa Junkera trikitilariaren laguntzaz aurrerakua eskaini eta Andoni Egañak bertsoa bota ostean etorri zen hain zuzen, bi jokalaria protagonista izan zituen ekitaldiko une garrantzitsuena. Lehen sagardo tragoa edalontzian zutela, edalontziak altxa eta sagardo berria dastatzeko denboraldia abiatu zuten, "Hauxe da Usurbilgo Saizar sagardo berria!" egoki asko ahoskatu zutenean. Hitzok entzunda, berehala hasi zen kupeletako "erromesaldia".



"Hauxe da Usurbilgo Saizar sagardo berria" oihukatu zuten Real Sociedadeko Diego Reyes eta Joseba Zaldia jokalariek, eta berehala hasi zen kupeletarako erromesaldia.

Lekua hartzen hasi...

Aginaga sagardotegia

■ Helbidea: Aginaga auzoa, 20.170 Usurbil.
 ■ 943 36 67 10.
 ■ Emaila: info@aginagasagardotegia.com
 ■ Web orria: aginagasagardotegia.com aginagahotela.com

Aialde-Berri sagardotegia

■ Helbidea: Aialde Berri, Santuenea 37, 20.170 Usurbil.
 ■ 943 365 031.

Araeta sagardotegia

■ Orduetgia: 10:30-18:30 (astelehenetik asteazkenera), 10:30-23:00 (ostegunetik igandera).

■ Helbidea: Berridi bidea 22, 20.160 Zubieta.
 ■ 943 362 049.
 ■ E-posta: araeta@araeta.com
 ■ Web orria: araeta.com

Arratzain sagardotegia

■ Helbidea: Sakabanatuak, 21.
 ■ 943 366 663 / 606 340 707.
 ■ E-posta: info@agroturismoarratzain.com
 ■ Web orria: agroturismoarratzain.com

Iruin sagardotegia

■ Helbidea: Petritza bidea 12, 20.160 Zubieta.
 ■ Tlf/fax: 943 361 229.

■ E-posta: info@iruinsagardotegia.com
 ■ Web orria: iruinsagardotegia.com

Saizar sagardotegia

■ Helbidea: Kalezar 39, 20.170 Usurbil.
 ■ 943 37 39 95.
 ■ E-posta: sidreria@sidrassaizar.com
 ■ Web orria: www.sidrassaizar.com

Urdaira sagardotegia

■ Helbidea: Urdaira baserria, Aginaga, 20.170 Usurbil.
 ■ 943 372 691.
 ■ Web orria: urdairasagardotegia.com

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Domina piloia jasoz amaitu zuten urtea



Usurbilgo Judo Taldeak 40 dominatik gora jaso zituen 2015 urteko azken txanpan jokatu ziren txapelketetan.

Beste behin, domina mordoa irabaziz borobildu du 2015a Usurbil Judo Klubak. Azken bi hilabeteetan izan dituzten txapelketetan lortutako emaitzen berri doakizue segidan:

Buruntzaldeko Alebiren

Txapelketa (Hernani, 15/12/19):

Kide gehienek lehen postuetan amaitu zuten: Xuban Gurrutxaga, Asier Unsain, Mikel Eizagirre, Markel Aburuza, Aitor Alonso, Oier Eleta, Oier Ikatzeta, Unax Gabellanes, Unax Arrozpide, Ekain Ramos, Garazi Mutiloa.

Kadeteen Espainiako Superkopa (Iruñea, 15/12/12):

2 domina eta 3 diploma: Mafer Carrazas (-48 kg, brontzea), Alba Vicente (-52kg, 7.postua), Nagore Eizagirre (-63kg, 5.postua), Josu Ruiz (-81 kg, brontzea), Mikel Formoso (-90 kg, 7.postua).

Infantilen Espainiako Kopa (Burgos, 15/12/06):

Diplomak irabazi zituztenen artean: Delia Medices (-40kg, zazpigarren), Mayla Tejera (-52kg, zazpigarren).

Kadeteen mailako Espainiako Kopa (Burgos, 15/12/05):

MAILA HANDIKO TALDEA

“Buruntzaldea, Gipuzkoa, Euskadi zein Espainiako txapelketetan onenen artean izan da beste behin ere Judo Taldea”

3 domina: Mafer Carrazas (-48kg, urrea), Nagore Eizagirre (-63kg, brontzea), Josu Ruiz (-81kg, zilarra).

Senior mailako Euskadiko Txapelketa (Hernani, 15/11/29):

16 domina guztira: Neskatan: Paula Vicente (-48kg, urrea), Miriam Gonzalez (-48kg, brontzea), Itsasne Arruabarrena (-52kg, zilarra), Andrea Arruabarrena (-57kg, urrea), Nahikari Borda (57kg, zilarra), Nagore Eizagirre (-63kg, zilarra), Lorea Etxabe (-70kg, zilarra), Aurelia Perret (+78kg, urrea).

Mutiletan: Andoni Aizpuru (-60kg, urrea), Nestor Laca (-66kg, zilarra), Sebastian Duciel (-66kg, brontzea), Ion Martin (-73kg, urrea), Alain Roman (-73kg, zilarra), Mikel Sanz (-90kg, brontzea), Egoitz Mora (-100kg, urrea), Iker Lizarribar (+100kg, urrea).

Senior mailako Gipuzkoako Txapelketa (Pasai Donibane, 15/11/22):

15 domina guztira:

Nesak: Paula Vicente (-48kg, urrea), Miriam Gonzalez (-48kg, brontzea), Itsasne Arruabarrena (-52kg, zilarra), Andrea Arruabarrena (-57kg, urrea), Nahikari Borda (-57kg, zilarra), Nagore Eizagirre (-63kg, urrea), Aurelia Perret (+78kg, urrea).

Mutilak: Andoni Aizpuru (-60kg, urrea), Eduardo Laca (-66kg, zilarra), Sebastian Duciel (-66kg, brontzea), Nestor Laca (-66kg, brontzea), Alain Roman (-73kg, zilarra), Ion Martin (-73kg, brontzea), Mikel Sanz (-90kg, brontzea), Iker Lizarribar (+100kg, urrea).

Informazio gehiago: jcusurbil.com

Pagazpe-Aurrera Saiaz, Euskal Herriko klub arteko finalean

Larunbatean ospatuko da Euskal Herriko Klub Arteko II. Pilota Txapelketako finala, Amezketako Larrunari frontoian. 11:00etan Kalejira, 12:00etan txapelketan parte hartu duten klubien bilkura kultur etxean, 14:00etan bazkaria eta 17:00etan Finalak Larrunari frontoian: Pagazpe-Aurrera Saiaz.

Pilota partidak

Urtarrilak 22, ostirala. 20:00h

Udaberri Txapelketa, Aginaga

■ Pala goma 1. maila:

PAGAZPE 1-ALTZATARRA

(Aitor Matxain-Jon Olaizola)

Urtarrilak 24, igandea. 12:00h

Euskal Herriko Txapelketa

■ Jubenil maila:

PAGAZPE -LAGUN ARTEA

(Hodei Exposito-Aitor Aranguren)

Eskubaloi partidak

Urtarrilak 23, larunbata

■ 09:15 Benjamin neska-mutilak: Herri kirol topaketak.

■ 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Ereintza B.

■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Tolosa C.F. "B".

■ 16:00 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Bera Bera.

■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Bera Bera.

■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Barakaldo.

Urtarrilak 24, igandea

■ 09:15 Alebin neskak, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Hernani E.T.

■ 10:30 Senior neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aloña Mendi K.E.

■ 12:00 Alebin mutilak, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa: Prestakuntza saioa.

Futbol partidak

Urtarrilak 23, larunbata

■ 10:00 Infantil neskak:

Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa KE

■ 16:00 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Idiazabal K.E.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

EAJ-PNV: "Benetako inbertsioetarako partida handiagoak behar dira"

A benduko azken plenoan onartu ziren 2016ko udal aurrekontuak. Oposizioko alderdiek aurkako bozka eman zuten. Biei, EAJ-PNV eta PSE-EEri balorazio bana eskatu diegu. Orriotan dituzue aurrekontuen inguruan NOAUA!ri eskainitako adierazpenak.

Behar bezala lantzeko denborarik ez zaiela eman adierazi digu EAJ alderdiak: "Aurrekontuak aztertu eta lantzeko oso denbora tarte txikia eman zaigu". EAJK modu kronologikoan azaldu du NOAUA!ra igorri duen balorazioan: "abenduaren 2an izandako lehenengo Ogasun Batzordean aurkeztu zitzaizun aurrekontu proiektua eta guk hainbat txosten eskatu genituen aurrekontua gogoz aztertu eta gure ekarpenak egiteko asmoz".

Hausnarketarako denbora falta

Eskatutako txostenak abenduaren 11n jaso zituztela, "eta 17rako bigarren Ogasun Batzordea deituak izan ginen, eztabaidatu eta hil bereko 23an burutu behar zen osoko bilkuran aurrekontuak onartzeko. Gure aldetik, iruditzen zaigu aurrekontuen onarpena dela udal jardunean hartu beharreko erabakirik garrantzitsuenetarikoa eta, horregatik, 10 milioi euro zertara bideratu behar ditugun aztertze, astebete baino gehiagoko hausnarketa prozesua beharrezkoa dela". Alderdi jeltzaleak Batzorde horretan egin zuen eskarietako bat, "2016ko aurrekontuen memoria orokor bat izan da, non aurrekontu proiektuaren azalpen orokorrak jasotzen diren. 2015eko aurrekontuekin alderatuz, diru sarreren eta gastuen atalean jasotzen dituen aldaketa nagusienak zeintzuk diren azalduz; aldaketa hauen arrazoiak; diru sarrera arruntan eta gastu arruntan arteko oreka...".

Diru sarreren atala

Eraikuntza, instalazio eta obren zergan, Ugartondo proiektuarengatik 454.000 euroko diru sarrerak



Josune Urkola EAJko udal zinegotzia da. 2016ko udal aurrekontuak aztertu eta lantzeko oso denbora gutxi izan dutela adierazi digu.

GARAPEN AGENTZIAZ

"Buruntzaldea bailara osatzen dugun herrietako alderdi politikoek adostasunetara iritsi eta lanean jarri behar dugu"

aurreikusitako diru, "baina uste dugu aurreikuspen hau ez dela beteko, azken lau urteetan ere ez delako kontzeptu honengatik 145.000 euro baino gehiago jaso izan. Horregatik, horren diru kopuru handia hain berme gutxirekin aurrekontuetan ezin dela jaso uste dugu. Esaterako, 2015. urtean % 72,26ko likidazio desbiazioa egon da kontzeptu honetan, hau da, udalak aurreikusitakoa baino % 72,26 txikiagoak izan dira diru sarrerak".

EAJren esanetan, Udal Ondasunen salmenta eta sarreretako I. eta II. kapituluetakoko %10, 2/2006 Lurzoru legeak jasotzen dituen betebeharrak zuzendu behar dira. Lege honen arabera Udal guztiak behartuta daude lurzoruko ondare publikoak eratu, mantendu eta kudeatzera, eta diru-sarrera mota hauek batez ere babes publikoko etxebizitzak eraikitze, urbanizazio obrak ordaintzeko edo antzeko inbertsioak egiteko erabili behar dira.

"115.1 artikuluan ere jasotzen da diru-sarrera hauek udal-ekipamendu kolektiboak eraikitze eta hobetzeko erabili daitezkeela baina,

gure ustez, helburu honekin aurreikusitako diru partidak (liburu erosketak, altzari erosketak, futbitoko sarea konpontzea, e.a.) ez dute betetzen bertan esaten dena. Aipatu artikuluetan apartaduan esaten du: Udal ekipamendu kolektiboak eraikitzea edo birgaitzea eta hobetzea. Gure ustez, xede honekin sartu diren partidak dagoena mantentzeko diru eta ez eraikitze, birgaitzeko edota hobetzeko".

Gastuen atala

Hori sarrerei dagokionez. Gastuen partidetan, aldiz, "beste behin ere, desfase handia ikusten dugu ingurumen partidan, kapitulu honetan aurreko 228.000 euroko defizita izango delako zabor-bilketan. Horregatik, sistema berrikusi beharra dagoela iruditzen zaigu. Honez gain, Ingurumena hondakinen arazoa baino gehiago ere badela esan behar dugu".

"Garapen Agentzia eraginkor bat beharrezkoa dugu"

Garapen Agentziari dagokionez, "agentzia eraginkor bat beharrezkoa dugu, enplegua, turismoa, euskera eta kultura eta agian gizarte laguntzak ere sustatu eta kudeatuko dituen. Horretarako, Buruntzaldea bailara osatzen dugun herrietako alderdi politikoek adostasunetara iritsi eta lanean jarri behar dugu. Bien bitartean, orain arte dagoen hitzarmena modu berean berritu behar da, dirulaguntzak lortu ahal

izateko".

Inbertsioetako partida asko "mantenu gastuak dira"

Inbertsioen kapituluarekin kritikoa ageri da Josune Urkolak gidatzen duen alderdia. Bertan azaltzen diren partidak asko "zerbitzutakoak eta mantenu gastuak baitira", adibidez:

- Liburutegiko altzarien erosketak 1.000 euro.
- Skate pista konpontzea 3.594,4 euro.
- Herriko frontoiko zorua 5.320,94 euro.
- Futbitoko sarea 2.032,80 euro.
- Udal eraikinen ITEAK eta EEZ 6.000,00 euro (Inspektzio Teknikoak).

Zerrenda luzeagoa da eta "Zubietako inbertsioak ere azaltzen dira. Partida honetan 70.000 euro sartu dira, zein motatako inbertsioak dira? Agian hauek ere mantenu gastuak izango dira".

Ildo beretik jarraituz inbertsioetako kapituluaren bi ibilgailu eta ekipa informatikoen erosketaren aurreikuspena jasotzen da. EAJren ustez, "erosi beharrean leasing, renting edo antzeko sistemaren bat aplikatzea egokiagoa dela uste dugu".

"Zumarte Musika Eskolak premiazko beharrak ditu"

Benetako inbertsioetarako "partida handiagoak" behar direla uste du alderdi jeltzaleak. "Esaterako, Zumarte Musika Eskolak premiazko beharrak ditu eta berehalako irtenbidea behar du. Horregatik, 2016 urtean eraikin berria egitea proposatzen dugu eta ez proiektua bakarrik. Musika taldeen entsaiotarako lokal falta ere izugarria da".

"Kirol arloan, instalakuntzen eskasia dago"

Eskubaloia dela, dantza taldea dela, entrenamenduetarako leku falta dagoela dio EAJK. "Urteak dira eskubaloioak eta pilotakoak (gaintzeko kirolak ahaztu gabe) instalazioen eskaerak egiten dituztela. Ikusi besterik ez dago pilotalekua baldintzak zeintzuk diren".

“Zumartek berehalako irtenbidea behar du”

Benetako inbertsioen alde egiteko eskatzen dio EAJk EHBil-duk zuzentzen duen udal gobernu taldeari: “eta apustu horiek epe ertain eta luzerako plangintza batean kokatu behar dira. Hain justu ere, horixe da aurrekontu haue-
tan gehien faltan botatzen duguna. Tamalez, urteak dira Usurbilgo aurrekontuetan aldaketa nabarmenik ez dagoela”.

Inbertsioetako aurreikusi diren partida batzuekin ados daude

Hala ere, inbertsioetako partida batzuk ondo ikusten ditu EAJ-PNV alderdiak, “Irazu kalea urbanizatzea, Erroizpeko urtegia egokitzea, Zumarte musika birgaitzeko proiektua aurrera era-



EAJren ustez, “inbertsiorik ez dago epe ertainean ditugun beharrei aurre egiteko”. Zumartek, adibidez, premiazko beharrak dituela uste du.

matea... baina gure iritziz ez dira nahikoak”.

EAJren ustez, 2016ko aurrekontuak orokorrean hartuta, “konti-

nuistak dira. Bai sarrerak eta baita gastuak ere puztuta daudela uste dugu eta hau gastuetako 2. kapitulu-
tulan dagoen desberdintasunean

ikusten da nabarmen; ez 2015eko aurrekontuarekiko baina bai aurre-likidazioarekiko”.

Bultzada baten premia

Herriari bultzada emango dion proiekturik ez du ikusten alderdi jeltzaleak, “eta inbertsiorik ez dago epe ertainean ditugun beharrei aurre egiteko. Udal aurrekontua kudeaketarako tresnarik balio-tsuen da, beraz herriko erakunde eta eragile sozialak kontuan izatea garrantzitsua da. Baina hori bezain garrantzitsua da herriarekiko dauzkagun betebeharrak profesio-
naltasunez eta zehaztasunez burutzea eta azken hauen gabezia benetan kezagarria da gure herriaren etorkizunerako”.

PSE-EE: “Borondate gehiagorekin, adostasuna lortu ahal izango genuke”

NOAUA! Aurrekontuak aztertze-ko denbora nahikoa ez dela egon esan zenuen plenoan. Planifikazio arazo bat izan dela uste al duzu?

PSE: Azaroko udalbatzan galdetu nuen 2016. urteko aurrekontuaren prestaketa nola zihoan, eta egun gu-
txi barru horren berri izango genuela erantzun zidaten.

Egia da Ogasun Batzordearen bil-
lerarako deialdia abenduaren 2rako luzatu zela. Nik ezin izan nuen bertaratu, Gipuzkoatik kanpo bainengoen, eta abenduaren 7an izan nuen aurrekontuaren berri. Zuzenketak aurkezteko epea 10ean bukatzen zen, eta 8a jaieguna zen. Hala, doi-doi ibili nintzen zortzi zuzenketa partzial aurkezteko. Horietako batzuk azken asteetan osatzen aritu nintzen eta beste batzuk Usurbilgo herritarren-gandik jaso nituen, Euskal Sozialis-
tak Udal Taldearen posta-kontuan (pse@usurbil.eus). 2016. urteko aurrekontua onartzeko ezohiko batzarra 17an izan zen, eta zuzenketak baztertu zituzten.

Zeintzuk izan dira EH Bilduk eginduen proposamenaren aurka bozkatzeko arrazoi nagusiak?

PSE: Arrazoi zehatzetatik haratago, desengainua hartu nuen nire taldearen zuzenketetako bat ere kontuan hartu ez izatea; nahiz eta, Udal Gobernuak onartu izan, Batzordean



Fermin Orue-Echevarria, PSE-EEko udal zinegotzia.

eta, ondoren, Udalbatzan, zuzenketa horietako batzuk baliagarriak zirela. Baina, gauza da baztertu egin zirela, nire botoa beharrezkotzat hartzen ez delako, suposatzen dut.

Eta hasieraz onartu den aurrekontu honek, zertan asmatu du?

PSE: Kontu-sail batzuk garrantzitsuak dira (ez dut guztiak aztertze-
ko astirik); baina, Gizarte Zerbitzu-
enak, Kulturarenak eta Kirolenak aipatu nahi nituzke. Nire ustez, denbora gehiagorekin eta borondate handi-
agoarekin, adostasuna lortu ahal izango genuke.

Aurrekontu prozesuan, alkateak zure jarrera txalotu zuen. Zure proposamen batzuk aurrera begira oso interesgarriak izan dai-

tezkeelako. Zeintzuk izan ziren proposamen horiek?

PSE: Bai, alkateak zuzen jokatu zuen, eta eskertzen dut hori. Adierazi dudanez, lehen galderaren erantzunean, ez nuen kontuan hartu osoko zuzenketa bat aurkezteko aukera; baina, zortzi zuzenketa partzial aurkeztu nituen, baten bat kontuan hartuko zenaren itxaropenaz, ha-
lakorik gertatu ez bazen ere.

Hona aurkeztutako zuzenketen zerrenda:

- A) Hamabi mila euroko aurrekontu-zuzkidura, herritarrek aukera izan dezaten euren hondakinak poltsa konpostagarrietan uzteko.
- B) Santuenea eta Txokoalde artean igarotzen den bidea argizatzea.
- C) Kalezarreko aldapatik haur-eskolara igotzen den bidean espaloai bat

eraikitzea.

D) Udalak Eudeli eta Udalbiltzari ematen dizkion diru-laguntzak berberak izatea.

E) Oriorako norabidean, hirigunetik N-634 errepiderako sarbideak hobetzeko aukera aztertzea.

F) Udalak planteatzen dezala Usurbilek, epe ertainean, eskola publiko bat izateko beharra, nahitaezko irakas-
kuntzaren zikloa osorik estaliko duena, ikastolaren hezkuntza-eskaintza osatzeko. Haren kokapena aztertze-
ko urratsak has daitezken eskatzen dugu, eskola publikoaren etorkizuneko eraikina egin litekeen udal-titulartasuneko orube posi-
bleak aztertuta.

G) Jakitea udalerrian utzarazpen-
arriskuan dauden pertsonak edo familiak ba ote diren: zenbat izango liritekeen eta zein den bakoitzaren egoera berezia.

H) Eskualdean garapen ekonomiko-
korako agentziarik ezean, Udalak landu dezala (dagoeneko landu ez badu) udalerriko langabeziaren azterketa: zenbat langabe dauden, prestakuntza- eta lanbide-profila, udalerrian dauden enpresen kontratazio-beharrak, behar horiek dagoen langabeziarekin bateratzeko aukerak eta langabeen prestakuntza-beharrak haiek berriro laneratzeko.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldia egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi: dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldia eta komunak. Duplex modukoa, oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabal. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariarekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340

Pixu bat Kaxkoan, 3 gela, egongela, sukaldia eta komun bat. Bi balkoi. 602503855 (17:00etatik aurrera).

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 702 264 / 686 143 786

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 laguntzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682

214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadroak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekabixki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadroak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Antxetan, neska bat behar dugu asteburuetan zerbitzatzeko. Tel. 943 370344

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldian, garbiketarako. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or-

duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketarako, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketarako egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Heriotzak

Manuel Utrera Sánchez

81 urterekin hil zen urtarrilaren 13an, Usurbilen



Juan Jose Olano Otaño

49 urterekin hil zen urtarrilaren 17an, Usurbilen



OHARRA: Urtarrilaren 29an aterako dugu hurrengo NOAUA. Oharrak, zorian-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urtarrilak 25 astelehena.

E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxeko batean bere seme-alaba gaztee-kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin.

619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Egurarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. 608 703 669

Urtebeteko ume baten zapata bat galdu genuen abenduaren 4an. Granate-berenjena kolorekoa, hosto berde pare batekin. See Kai Run markakoa, 5 talla. 639 469 577.

Bi ohedun haur logela berria salgai. "T" itxura duena. 100 euro. 675 007 048. Garbiñe.

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzt. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUAra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUAtik, bertan ditugu eta.

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUAIn edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagun-dukoduz. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Urtarrilak 21 - urtarrilak 31

Osteguna 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 31 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Agenda urtarrila

21 osteguna

- Ametsen liburua, aurkezpen ekitaldia Sute-
gin, 19:00etan.
- Arrate elkarteko margolan tailerraren
erakusketa Artzabal jatetxean.

22 ostirala

- Arrate elkarteko margolan tailerraren
erakusketa Artzabal jatetxean.

23 larunbata

- Margolan erakusketa Artzabal jatetxean.
- Saharar kanpamenduetarako laguntza
bilketa. Egunean zehar, Urbilen.
- Dominika Agergarairi omenaldia
19:00etan Sutegin.

Dominika Agergarairen omenez

Zuberoa ezagutzen hasi ginen, han-
go berri izan nahian. Han ezagu-
tu genuen Dominika. Zuberoako
ateak ireki zizkigun. Joan-etorrikoa bi-
hurtu zen harreman hori. Gerora, maiz
izan direlako gure artean Dominika eta
xiberotar lagun gehiago. Iaz zendu zen
Dominika eta bere heriotzak atsekabea
eragin zuen usurbildar askoren artean.
Larunbat honetan, omenaldia eskainiko
diote Sutegin. Nafartarrak taldeak hartu
du antolaketa lanaren ardura.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da Do-
minika Agergarairen omenezko ekitaldia.
Oholtza gainean, zein auditorioko eserle-
kuetan, han eta hemen egin zituen lagun
asko batuko dira. Besteak beste, Mixel
Etxekopar, Jean Mixel Bedaxagar, Sacha
Standen, Jean Bordaxar, Robert Larran-
daburu, Jean-Pierre Luro edota Jean-
Noël Pinque. Sarrera doan izango da.



Larunbat honetan, Dominika Agergarairen
omenezko jaialdia Sutegin.

“Ametsen liburua”, aurkezpen ekitaldia

Liburuan parte hartu duten Usurbilgo
preso ohiek eta Jokin Urain liburuaren
koordinatzaileak hartuko dute parte.

- Eguna: urtarrilak 21, osteguna.
- Sutegin, arratsaldeko 19:00etan.
- Oharra: liburua, bertan ikusgai eta sal-
gai izango da.

Saharar kanpamenduei laguntzeko kanpaina

Sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta,
konpresak, hegaluzea oliotan eta lekaleak.
Hori batzeko kanpaina abiatu du Lasar-
te-Oriako Saharako Lagunak taldeak.

Ekarpen horiek egiteko aukera izango
da larunbat honetan, Urbil merkatalgu-
nean.

Datozenak

Energia Azoka

Urtarrilaren 30ean, goizeko 10:00etatik
aurrera Mikel Laboa plazan, Usurbilgo
Udalak eta Lanbide Eskolak antolatuta.
“Energia berriztagarriak eta eraginkor-
tasun energetikoa gai hartuta eduki
desberdineko postuak egongo dira.
Eraginkortasun energetikoaren kultura
eta energia garbier erabilera hedatzea
asmoz bertan hainbat gailu (berotze
sistemak, kotxe elektrikoa, elektrizita-
te kontsumo neurgailuak, isolatzaile
termikoak, bizikleta elektrikoak etab..) erakusgai egongo dira. Era berean,
etxeko faktura ulertzeko azalpenak ere
emango dira”, antolatzaileek ohartarazi
dutenek.

- Urtarrilaren 30ean larunbata.
- Goizeko 10:00etatik 14:00etara, Mi-
kel Laboa plazan.
- 12:00etan hitzaldia Sutegiko erakus-
keta aretoan: “Etxeko kontsumoaren
fakturaren azalpena”.

Kantu-jira

Eguberrietan etenalditoxa egiten dute,
baina berriz ere martxan dira Kantu
Taldekakoak. Ohikoa duten moduan, hila-
beteko azken larunbatean arituko dira
kantuan.

- Urtarrilaren 30ean larunbata.
- Ordua: 19:00.
- Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URPI Leihook
urpileihook@gmail.com
943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atzek) USURBIL

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



BAZKIDEEN TXOKOA



urtarrilaren 22an Zozketatuko dugu:

**AIALDE-BERRI
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe



Udarregi

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

48 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus